



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**PROZEDURA IREKI BIDEZ, OBRA-KONTRATURAKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA. ESLEITZE-PROZEDURA: LEHIAKETA. OHIKO TRAMITAZIOA.**

**“EPELEKO ZABORTEGIAN BARNE-BIDE BAT ETA UR GARBIEEN UBIDE PERIMETRALAK EGITEKO PROIEKTUA” GAUZATZEKO LANAK**

## **I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Baldintza Agiri honen arabera egingo den kontratuak “Epeleko zabortegian barne-bide bat eta ur garbientzako ubide perimetralak egiteko Proiektuari” dagozkion lanak gauzatzea izango du helburu; ASMATU, S.L.k idatzitako Proiektua da, kontratu-izaera izango duen espedientean agertzen den dokumentazio teknikoaren arabera.

### **2. EXEKUZIO-EPEA**

Kontratazio honen xede diren lanak egiteko epe osoa LAU HILABETEKOA izango da, zuinketa egiaztatzeko akta izenpetu eta biharamunetik zenbatuta.

Epe hori igarota, kontratista berandutzan eroriko da, eta ez da Administrazioaren aldetik hertsatuki agindu beharrik izango.

### **3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa, BEZ barne, hau izango da: MILIOI BAT HIRUREHUN LAUROGEITA LAU MILA BEDERATZIEHUN ETA ZAZPI EURO ETA HOGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.384.907,39 euro), eta zenbateko hori beheratuz hobetu dezakete enkante-eskaintzaileek.

Ez zaie beherapenik aplikatuko Segurtasun eta Osasuneko eta Kalitate Kontroleko partida edo diru-sailei aplikatuko.

Kontratuaren ondorioz ordaindu beharreko era guztietako zerga eta gastuak ere prezioan sartuta daudela ulertuko da.

Kontratuaren prezioan unitate-prezioen zerrenda sartuko da, eta horiek izango dira indarrean kontratua gauzatu bitartean. Prezio horiek ez badira aurkezten, ulertuko da eskaintzaileak Administrazioaren aurrekontuko berberak onartzen dituela, bere proposamen ekonomikoan eskaintzen duen beherapenaren ehuneko bera aplikatuta.



#### 4. FINANTZAKETA

Bada funts espezifikoko bat obra hau finantzatzeko eta beharrezko kredituak habilitatuko dira kreditudagokion transferentziako espedientearen bidez.

#### 5. ORDAINTZEKO ERA

Egindako obren ordainketa hileroko obra horien zuzendari fakultatiboak egindako ziurtapenen bidez egingo da.

Ziurtapena onartu ondoren, TRLCAPen 99. artikuluan legez ezarritako epeetan ordainduko da.

#### 6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratuaren ezaugarriak kontuan izanda, ez da prezioak berrikusteko eskubiderik izango.

#### 7. BERMEAK

##### Behin-behineko bermea

Enkante-eskaintza honetan parte hartzeko, eskaintzaileek behin-behineko bermea aurkeztu behar dute, 27.700 €-koa, kontratuaren aurrekontuaren %2ren baliokidea, esleipenaren ondoren itzuliko dena.

Behin-behineko bermea esleitu arte eskaintzaileek aurkezturiko proposamenak mantentzeko izango da, eta esleipendunaren proposamena mantentzeko kontratua formalizatu arte: inkautatu egingo zaie beren proposamena justifikaziorik gabe esleipena baino lehen erretiratzeko duten enpresei, baita behin betiko bermea aurkeztu ez duen esleipendunari ere, edota, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua ezin bada formalizatu dagokion epean, kasu hauetan bete egingo delarik berme hori.

Horretarako, justifikazio gabeko erretiratzetza hartuko da eskaintzetan ausarkeria sumatzen den kasuetan informazioa eskatu eta erantzunik ez ematea, edota eskaintzaileak aitortzea ezin gauzatuzko bihurtzen duen akatsen bat edo funtsik eza dagoela bere proposamenean.

Esku-dirutan ezartzen den behin-behineko bermea Debagoieneko Mankomunitatearen edozein kontu korrontetan sartuko da, eta berme-ezarpenaren justifikagiria "A" delako gutun-azalean sartuko da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Egungo legeriak onartzen dituen bideetako beste edozein erabiliz eratzen diren bermeak kontratazio-organoaren aurrean aurkeztuko dira, "A" gutun-azalaren barruan agiria sartuz, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginaren 35. artikuluan ezarritakoaren arabera.

##### Behin betiko bermea

Bere gain hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipenduna beharturik dago behin betiko bermea aurkeztera, esleipen-zenbatekoaren %4koa.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kontratuaren esleipena jakinarazten zaionetik aurrera hamabost egun naturaleko epea dago berme hori egiteko, eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginaren 35.1 artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan egin ahal izango da, salbuespen batekin: esku-dirutan aurkeztutakoak Debagoieneko Mankomunitatearen kontu korronteren batean sartu behar dira.

Bermearen itzultzea, bai osorik eta bai, hala balegokio, zati bat, aipatu Testu Bateginaren 47. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea amaitu ondoren eta esleipendunak bere kontratu-betebehar guztiak bete ondoren.

### **8. KONTRATUA GAUZATZEA**

Obra-kontratuaren gauzatzea zuinketa egiaztatzeko akta izenpetzearekin hasiko da, eta hori kontratua formalizatzen denetik aurrera hilabeteko epean egin beharko da.

Kontratu hau betetzea kontratistaren arrisku eta benturara egingo da, eta honek ez du kalte-ordainetarako eskubiderik izango obretan izandako galera, matxura edo kalteengatik, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta kasu hauek Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginean 144. artikuluan ezarrita daude.

Nolanahi ere, obrak egiteko zorrotz beteko dira Agiri honetan xedatutako klausulak, beroni atxikitako espezifikazio teknikoak, baita Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginean eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutakoan, ezarritakoa ere. Bereziki, kontratua gauzatzea Administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean egingo da, eta ahalmen horiek idatziz nahiz ahoz erabiliko dira.

Kontratistari edo bere mendeko pertsoneri egozteko moduko egite edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona konprometitzen denean, Administrazioak beharrezko iruditzen zaizkion neurriak hartu ahal izango ditu martxa ona berreskuratzea lortzeko.

Lanak Epeleko Zabortegiaren jarduera propioaren funtzionamendu normalari eragin gabe egin behar dira. Zabortegiaren funtzionamenduak lehentasuna izango du beti obrak egitearen aurretik. Baldintza hori kontuan izanda planifikatuko ditu Kontratistak lanak egitea eta lan horietarako beharrezko baliabideak, eta beraz ez da atzerapenik onartuko, ezta aurrekontua igotzerik ere, obrak zabortegiaren jarduera propioarekin koordinatu beharraren ondorioz.

### **9. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK**

Lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-xedapen guztiak bete behar ditu kontratistak, kontratu honen xede diren lanetan erabiltzen dituen langileei buruz. Kontratistak ez baditu betebehar horiek betetzen, Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango.

### **10. BALIABIDE LAGUNTZAILEAK ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

Esleipenduna beharturik dago kontratuan hitzartutako epeetan obrak ondo egiteko beharrezko diren makinak eta bitarteko laguntzaileak jartzera.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Lan, bitarteko laguntzaile eta material guztiak, baita laneko segurtasun eta osasun-elementu edo unitate guztiak ere, edozein obra-unitate egoki egin eta burutzeko beharrezko direnak, bere prezioan sartutzat joko dira, nahiz eta guztiak ez agertu espezifikatuta prezioen xehekatze edo deskribapenean.

Obrak hasi aurretik, kontratista esleipendunak Segurtasun eta Osasun Plana egingo du, proiektuan ezarritako Segurtasun eta Osasun Azterketan oinarrituta; Azterketan ezarritako aurreikuspenak analizatu, aztertu, garatu eta osatuko dira Planean, eta obra-jarduketa zehaztutara egokituko da, eta exekuzio-sistema propioaren funtzioan betiere.

Bestalde, ez da inolako partida estrarik onartuko, sarbideak prestatzeko, obra-materialaren garraio eta zabalantarako, obraren aurrekontu orokorrean sartuta ez badago, obra-unitateen prezio unitarioetan sartuta baleude bezala hartzen dira eta.

Halaber, enpresa kontratistak bere kontura instalatu behar ditu obra-sarbidea adierazteko behar diren seinaleak, zirkulazio-arauketa lan-guneetan, eta arrisku-gune posibleak, bai lan-gune horietan eta bai inguruetan; obraren izaerak eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak hartu beharko ditu pertsona eta ondasunentzat.

### **11. OBRARA ESLEITUTAKO LANGILE TEKNIKOAK**

Agiri honen xede den obrara esleitutako langile teknikoek Obraburu bat izango dute, obraren egilearen ordezkari teknikoak izango du, eta bere titulazio eta esperientziatik gaitasun egokia izango du, obraren ezaugarri eta konplexutasunerako.

Obrara esleitutako langileen curriculum atxikiko da.

Obraburu kontratistaren ordezkaria izango da Mankomunitatearen aurrean, eta beraz bien arteko komunikazio formalerako bide.

### **12. AZPIKONTRATATZAILEAK**

Txosten Teknikoan esleipendunak azpikontratatu behar dituen enpresak ere adieraziko dira, etxe espezializatuek egin beharreko obra-alderdietarako, salbu bere espezialitatean sailkatua edo homologatua legokeenean. Azpikontraturiko enpresen zerrenda horien curriculumarekin osatuko da.

Azpikontraturiko enpresa horiek aldatzeko Mankomunitatearen berriazko baimena beharko da.

### **13. OBRA-IKUSTEAK**

Obrak astean behin ikusiko dira gutxienez, eta horietara Mankomunitateak izendaturiko ordezkariaren bat joango da aldizka, Obraren Zuzendaritza Fakultatiboko teknikariek eta Obraburuarekin batera.

### **14. PROIEKTUA GAUZATZEKO BEHARREZKO BAIMENAK**

Enpresa esleipendunak beharrezko zuzemen edo gestioak egingo ditu, bai enpresa hornitzaileen aurrean eta bai eskudun diren Administrazioen aurrean, Proiektua gauzatzeko beharrezko diren baimenak lortzeko, albo batera utzita Mankomunitateak beteko dituela eskari formalak.



## 15. OBRA-SEINALEZTATZEA

Obrak egin bitartean esleipendunak horren berri ematen duten idazkunak ipiniko ditu, identifikazio-kartelen bidez.

Halaber, obra babesteko neurriak adierazi eta ezartzeko kontratistak jarri beharreko seinaleen testua euskaraz ere agertuko da.

## 16. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BETE BITARTEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Obrak egin bitartean, edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu —publiko edo pribaturi— egiten zaizkion kalteen erantzule kontratista izango da. Bere ardurapeko langileen egite, ez-egite edo axolagabekeriaren ondorioz baldin bada, edota obra horien antolaketa, babes edo seinaleztatze okerraren ondorioz.

Horretarako, esleipendunak, kontratua izenpetu aurretik, polizaren kopia eta eraikuntzako arrisku orotako poliza kontratatzekeo primaren ordainagiria aurkeztu behar du; ondorengoak estali behar ditu poliza horrek:

- a) Eraikuntza- eta berme-aldian lanetan izan daitezkeen kalteak, esleipen-zenbatekoaren mugaraino, arrisku konbentzionalek (sute, tximista, leherketa, inpaktu, egintza basati eta asmo txarrekoak, etab.), naturako arriskuek, edota greba, matxinada, sabotajea, asaldu zibil eta terrorismoaren arriskuek, eta aseguratu gisa Mankomunitatea sartuko da.
- b) Bere langileek, enplegatuek eta mendeko iraunkor edo behin-behinekoek, bere ekipoek eta tresneriak, obrak egin bitartean zertzen diren lanen ondorioz, beste batzuei eragindako kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua), SEIEHUN MILA EUROKO (600.000 €) zenbatekoa bermatuz.

## 17. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoagatik, premia berriak edo ustekabeko kausak sortzen direnean, eta kontratistak ez du inolako kalte-ordainetarako eskubiderik izango, betiere Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak 149.e) artikuluan ezartzen duenaren kalterik gabe.

Kontratuko aldaketek bertan ez dauden obra-unitate berriak sartzea eskatzen dutenean, aldaketa horien prezioak Kontratazio Organoak finkatuko ditu, eta kontratistak onartuko ez balitu, Kontratazio Organoak beste enpresaburu batekin kontrata ditzake finkaturiko prezio berberetan, edota berak zuzenean egin ditzake.

## 18. OBRAK ONARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak bukatzen direnetik gehienez ere hilabeteko epean obrak onartzeko egintza formal eta positiboa egingo da, eta dagokion akta ere egingo da.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Halaber, URTEBETEKo epea ezarriko da, onartze formala egiten denetik aurrera, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginean eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean ezarritako ondorioetarako berme gisa.

Dena den, berme-epea bukatu eta gero obra hondatu egiten bada eraikuntzako akats ezkutuengatik eta kontratistak ez duelako kontratua bete, berorrek erantzun beharko du kalteez obra onartu ondorengo hamabost urteetan. Epe hori igarota, inolako kalterik ez bada agertu, erabat desagertuko da kontratistaren erantzukizuna.

### 19. KONTRATISTARENTZAKO ZIGORRAK KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

#### A) KONTRATUA BETETZEKO EPEEI BURUZ

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egin bada kontratua betetzeko zuen epea betetzen, bai epe osoari dagokionez eta bai epe partzialei dagokienez, Administrazioak kontratua suntsitzea erabaki dezake, kontratistak bermea galduko duelarik, edota eguneko zigorra ezar dezake: 0,87 kontratu-prezioaren 601,01 euro bakoitzeko.

Berandutzagatiko zigorrak kontratu-prezioaren %5eko multiploa lortzen duten bakoitzean, Kontratazio Organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko, edota zigor berriak ezarritik egiten jarraitzea erabakitzeke.

#### B) PRESTAZIOEN EGITE PARTZIALA

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehazturiko prestazioen egite partziala bete ez badu, Administrazioak kontratua suntsitzea erabaki dezake, edota zigorra jar dezake: kontratuaren prezio osoaren %10ekoa.

### 20. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK

Obra-kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak 111 eta 149. artikuluetan ezarritakoak.

### 21. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Administrazioari dagozkio prerrogatiba hauek: kontratuak interpretatzea, hori betetzerakoan sortzen diren zalantzak erabakitzea, interes publikoagatik aldatzea, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioekiko Kontratu etarako Legearen Testu Bateginean eta bere Erregelamendu Orokorrean ezarriak, ezartzen dituen mugen barruan eta betebeharrak eta efektuen arabera.

## II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

### 22. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA ERA

Kontratu hau esleitzea prozedura ireki bidez egingo da, lehiaketa erabiliz.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Lehiaketa esleitzeko oinarritzat hartuko diren irizpideak, garrantzi gehienekotik gutxienekora zerrendatuta, eta ematen zaien ponderazioaren arabera, honako hauek dira:

### 1.- Kontratuaren prezioa ..... %50

Onartutako proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioaren kalkulua interpolazio lineal bidez egingo da, ondorengo bi puntu hauek mugaturiko zuzenaren arabera:

**P1.- Gehinezko puntuazioa:** %20ko beherapena lizitazio-prezioaren gain: 50 puntu.

**P2.- Gutxieneko puntuazioa:** Lizitazio-tasa: 0 puntu.

### 2.- Obrak zabortegiko jarduerarekin koordinatzeko Plana..... %20

Proposaturiko metodoak, baliabideak eta plangintza zabortegiaren jarduerarekin koordinatzea balioetsiko da, jarduera hori inoiz ez dezaten distortsionatu egin beharreko lanek. Helburu horrekin, egiten diren analisiak eta proposamenak aztertuko dira: lanerako ordutegi egokienak, datak (asteburuak, zabortegian lanaldi murriztuko garaiak, etab.), egin beharreko lanen arabera, erabilera-guneak obrako lantegi eta zerbitzuentzat, makinak metatu eta gordetzeko guneak, makinaren igarobideak eta zabortegian ibiltzen diren kamioienak adostea, dagoen bidea asfaltatzeko egun, ordu eta metodorik egokienak aztertzea, ibilgailuen zirkulazioa etenik gabe ziurtatzeko... Azken batean, egiten diren proposamenak balioetsiko dira, behar bezala justifikatuak, obrak eta Epeleko zabortegiaren jarduera propioaren arteko koordinazio ona ziurtatzera bideratuak.

### 3.- 2.- Txosten teknikoa..... %15

2.1.- Obra hasi aurreko lanen analisia, obra-eremua seinaleztatzea eta balizatzea. Obraren antolamendua deskribatzea, bere kokapena kontuan izanda, eta hori osatzea sarbideen planoekin, makinaren eta garabien kokapenarekin, metatze-guneekin, behin-behineko obra-lantegiekin... Proiektuko Segurtasun Azterketaren arabera hartu beharreko segurtasun-neurriak, obra hasi aurretik nahiz obrak egin bitartean, eraikuntzaren kanpoko aldean nahiz barruan.

2.2.- Zaharberitze-lanak egiteko proiektuan proposaturiko eraikuntza-metodoaren eta bideragarritasun teknikoaren analisia. Obrak egin bitartean sor litezkeen zailtasun tekniko eta konstruktibo posibleen analisia, ezusteko horietarako konponbide-proposamenarekin, bai obraren beraren ikuspegitik eta bai Mankomunitatearen funtzionamenduaren afekzioan (inplikazioa exekuzio-epeetan eta eragin ekonomikoa ezustekoaren funtzioan). Analisi horrek koherentea izan beharko du aurkezturiko lan-programarekin.

2.3.- Obrara esleitutako langile teknikoak, dagozkien curriculumekin.

2.4.- Obraren alderdi espezifikotarako azpikontratatzaille posibleen zerrenda, bakoitzari dagokion curriculumarekin.

2.5.- Prezio xehekatuen zerrenda, unitate-prezioen zerrenda argituko duena eta berarekin bat etorriko dena. Baita prezio bakunen zerrenda ere, horietatik abiatuta aurreko prezio unitarioetara iristen delarik.



## DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

2.6.- Agirian eskatutakoari gehitzeko, beste abantaila tekniko batzuk ere adierazi ahal izango dira, kontratatu beharreko obraren egitea hobetzeko nahiz proiektuan ezarritako materialen kalitaterako interesgarritzat jotzen direnak.

### 3.- Egin beharreko lanen programazio zehaztua ..... %15

Obra egiteko plangintza kontuan izan eta garatuko duen programa, proposaturiko egite-epea frogatuko duena, baldintza teknikoan agirian dagokion klausulan deskribatzen den bezala. Programa horrek garatu beharreko jardura guztiak hartuko ditu kontuan eta gutxienez faseak adieraziko dituen barra-diagrama baten bidez irudikatuko da. Exekuzio-planaren epe partzialak ezarritako epe globalaren arabera izango dira, eta kontratua gauzatzeko proposaturiko epearekin bat datozenak. Halaber, programa horrek koherentea izan behar du aurreko irizpidea balioesteko eraikuntza-metodoari buruz aurkezturiko analisiarekin.

Balioetsi egingo da aipaturiko lan-programari faseak azalduko dituen txostena eranstea, kritikoak diren lantegi edo faseak edo/eta egoki gauzatzeko proposaturiko ordenaren arabera obraren garapena baldintzatuko dutenak adieraziz. Halaber, programaren metodologiaren aurkezpena balioetsiko da, obrara atxikitako langileen eta makinaren arabera etekinak eta eraikuntza-prozesuak analizatuz.

## 23. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura honetan pertsona natural edo juridikoek parte har dezakete, jarduteko gaitasun osoa baldin badute, beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen badituzte, eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bateginak 20. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetan sartuta ez badaude. Kaudimena 18. klausulan ezarritako bitartekoen arabera egiaztatu eta balioetsiko da

Halaber, beren izenean edo baimendutako beste norbaiten bidez aurkez dezakete, horretarako aski ahalorde emanda. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa bere kideren bat agertzen denean, horretarako ahalmena duela frogatu behar du agiri bidez. Eta kasu batean nahiz bestean, ordezkariari ere kontratatzeke aipatu ditugun ezintasun-kausak dagozkie.

## 24. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espediente, eta horri atxikitako dokumentazio teknikoa, Debagoieneko Mankomunitatearen Idazkaritzan aztertuko da, bulego-orduetan, lanegun guztietan (larunbatean izan ezik), lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Horiek Mankomunitatearen Sarrera Erregistroan aurkeztuko dira aipaturiko ordutegi berean, hogeita sei (26) egun naturaleko epean (azken eguna jai-eguna baldin bada, epea hurrengo lehen lanegunera luzatuko da), aipaturiko iragarkia agertzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Geroago aurkezten diren proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta konstarazi epea amaitu baino lehen ipini zirela Postetxean, salbu postaz bidali den egun berean Kontratazio Organoari telex, fax edo telegramaz jakinarazi bazaio eskaintza bidalitako dataren justifikazioa. Bi baldintza horiek ez badira betetzen, ez da proposamena onartuko proposamenak aurkezteko epea bukatu eta gero iristen bada. Dena den, aipaturiko dataren ondorengo hamar egun naturaletan proposamena ez bada iristen, ez da inola ere onartuko.

Eskaintzaileek bi gutun-azal aurkeztuko dituzte itxita (A eta B) eta horietako bakoitzean hau agertuko da: "EPELEKO ZABORTEGIAN BARNE-BIDE BAT ETA UR GARBIEN UBIDE PERIMETRALAK EGITEKO PROIEKTUARI" DAGOZKION LANAK, LEHIAKETA IREKI BIDEZ, KONTRATATZEN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena ere adieraziko da, proposamena izenpetzen duenaren izen-deiturak eta zein izaeraz egiten duen, bi gutun-azalak ere izenpetuta egon behar dutelarik.

### **1) "A" gutun-azalak azpтитulu hau izango du: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" eta ondorengo agiriak izango ditu barruan:**

1.a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak eta, hala balegokio, bere ordezkariaren nortasuna.

Nortasuna egiaztatzeke aurkeztu behar dira:

- Nortasun Agiri Nazionala (DNI) eskaintzailea bere izenean aurkezten bada.
- Beste pertsona baten ordezkari gisa diharduenean, Nortasun Agiri Nazionala (DNI) eta ahalordetzeko eskritura. Dokumentazioa kalifikatzeko ekitaldian ahalordea askietsiko da, ofizioz.
- Eskaintzailea pertsona juridikoa baldin bada, eraketa-eskritura edo, hala badagokio, aldaketa-eskritura aurkeztu behar du, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua eta zerga-identifikazioko zenbakiarekin, hau eska dakioken betebeharra baldin bada aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera. Ezin bazaio eskatu, jarduteko gaitasunaren egiaztatzea eraketa-eskritura edo agiriaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez egingo da, horietan agertzen badira bere jarduera erregulatzen duten arauak, hala balegokio, bere Erregistro ofizialean inskribatuak. Enpresaburuak espainiarrak ez direnean baina bai Europako Erkidegoko kide diren estatuetakoko kideak, Erregistro Profesional edo Komertzial batean izena emanda daudela egiaztatu beharko dute, beren Estatuko legeriak betebehari hori eskatzen duenean.
- Hainbat enpresaburuk Aldi Bateko Enpresa Elkarte gisa aurkeztu nahi badute, horietako bakoitzak bere gaitasuna egiaztatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera eta, halaber, esleipendun gertatuz gero, ALBE/UTE gisa eratzeko konpromisoa hartuko dute. Halaber, ALBE/UTEren kide bakoitzak egingo lukeen zatia adieraziko dute proposamenean, guztien kaudimen-betebeharrak zehaztu eta egiaztatzeke.

1.b) Kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela izendatuki aitortzea, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 20. artikuluan ezartzen dituelarik debeku horiek.

1.c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, eskudun diren erakundeek emandako ziurtagiri bidez.

1.d) Eskaturiko enpresa-sailkapena egiaztatzen duen agiria.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kontratastaren sailkapen hauek egiaztatzen dituen agiria:

**Taldea E, Azpitaldea 7, Categoria e**  
**Taldea G, Azpitaldea 4, Categoria c**

1.e) Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako, atzerriko enpresek aitorten bat aurkeztu behar dute Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adieraziz, eta, hala balegokio, beraiek atzerrian izan lezaketen foru jurisdikzionalari uko egin diotela adieraziz.

1.f) Behin-behineko Bermea:

Behin-behineko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratu eta Kontratasten Erregistroen Erregelamendua onartzeko otsailaren 3an eman zen 12/1998 Dekretuak araturiko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribaturik dauden enkante-eskaintzaileek, 1.a), 1.b) eta 1.c) ataletan eskaturiko agirien ordezt, Erregistroaren arduradun den letratuak eginiko kopia egiaztatua aurkez dezakete.

**\* Agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira edo behar bezala egiaztatutako kopiak.**

\*\* "A" gutun-azalean eskaturiko agiriak Mankomunitate honen Kontratazio Unitateak bideratutako beste kontratazio-espeditante baterako aurkeztu badituzte esleitze-datatzen aurreko sei hilabeteetan eskaintzaile horiek ez dute berriro aurkeztu beharrik izango, ez bada horietan aldaketarik izan edo/eta ez badaude iraungita, zirkunstantzia hori aitorten arduratsua bidez konstatatzen beharko dutelarik.

\*\*\* Esleipendun gertatzen ez diren eskaintzaileek, kontratua esleitu eta errekurtsioak jartzeko epeak inolako errekurtsio gabe igaro ondoren, "A" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa itzultzea eska dezakete. Halaber, esleipendunak, kontratua bete eta behin betiko bermea itzuli ondoren, itzulketa hori eska dezake.

**2) "B" gutun-azalak azpigitulu hau izango du: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ESLEIPEN-IRIZPIDEAK" eta barruan ondorengo agiriak:**

a) Unitate-prezioen zerrenda.

b) Proposamen ekonomikoa, ondorengo eredura egokitua:

..... jaunak/andreak (.....(e)n bizi dena eta N.A.N.-zka. .... duena, eta telefono-zka.....) jarduteko gaitasun juridiko oso-oso duelarik, bere izenean (edota .....(r)en izenean eta ordezt, honen egoitza soziala .....da, telefono-zka. .... eta NAN/DNI edo CIF zka. —persona fisikoa edo juridikoa izan— .....) ***"Epeleko zabortegean barne-bide bat eta ur garbientzako ubide perimetralak egiteko Proiektuari"*** dagozkion obrak kontratatutako Debagoieneko Mankomunitateak deitutako lehiaketaren berri izanda, zera aitortzen dut:



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

1º) Horiek egitera konprometitzen naizela prezio honetan: ..... (letra eta zenbakitan) .....euro, eta ..... eguneko epean, prezioan sartutzat jo behar direlarik zerga, gastu, tasa eta edozein zerga-eremutako arielak, baita kontratistaren industria-mozkina ere.

2º) Ezagutzen ditudala Administrazio Klausula Partikularren Agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, espresuki neure gain hartu eta onartzen ditudalarik oso-osorik.

3º) Nik ordezkatzeko dudako enpresak indarrean dagoen araudiak eskaturiko betebeharrak guztiak betetzen dituela bere irekitze, instalazio eta funtzionamendurako.

.....(e)n, 2008ko .....aren .....(e)an  
Sinadura

- c) Txosten teknikoa eta lan-programa, 22. klausulan ezarritako irizpideak balioestea ahalbidetuko duena.
- d) Lanak Zabortegiko jarduerarekin koordinatzeko plana.

### 25. ALDAERA EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartuko.

### 26. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria: - Mankomunitateko lehendakaria edo honen ordezkari den Juntakideren bat.

Bokalak: - Ingurumen Batzordeko lehendakaria edo honek eskuordeturiko Batzordeko kidea.  
- Mankomunitateko behin-behineko kontu-hartzailea  
- Mankomunitateko behin-behineko idazkaria

Idazkaria: - Mankomunitateko behin-behineko idazkaria

Gainera, gai bakoitzeko teknikariak ere joan daitezke, aholkulari-lanak egiteko Mahaiak beraien presentzia eskatzen badu.

### 27. AGIRIEN KALIFIKAZIOA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, garaiz eta behar bezalako forman iritsitako dokumentazioa ("A" gutun-azala) kalifikatuko du, horretarako Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorren 81. artikuluan eta hurrengoetan ezarrita dagoen bezala jokatuz.



## DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Horretarako, eskaintzaileen gaitasun eta kaudimenari buruzko azalpenak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dira, eta Erregelamenduko 22. artikulua xedatzen duen bezala aurkeztu beharko dira, bost egun naturaleko epean. Azalpenak edo agiri osagarriak eskatze hori Mahaiak ahoz adieraziko die interesatuei, eta aldi berean Mankomunitateko iragarki-taulan ere iragarriko da. Era berean adieraziko du Mahaiak aurkezturiko dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsik dagoen edo ez, kasu honetan hiru lan-eguneko epean eskaintzaileek zuzen ditzaten aurkituriko akats horiek.

Mahaiak, aurkezturiko dokumentazioa kalifikatu eta, hala balegokio, aurkituriko akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, Agiri honen 18. klausulan ezarritako aukeratze-irizpideetara egokitzen diren enpresak zehazteari ekingo dio, argi eta garbi erabakiz zein diren enkantean onartuak, zein baztertuak eta bazterte horretarako kausak.

“B” gutun-azalean sartutako proposamen ekonomikoak ekitaldi publikoan irekiko dira proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo lehen lan-egunean, 10:00etan, salbu postaz bidali direnean, orduan Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa beteko baita.

Gero, eta dagozkion txosten teknikoak aurrez eginda, Kontratazio Mahaiak kontratua esleitzeko proposamena egingo dio horren eskumena duen Kontratazio Organoari.

### **28. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Esleipena bost hilabeteko epean egingo da, proposamenak irekitzeko egunaren biharamunetik zenbatuta.

Kontratua Kontratazio Mahaiak egindako esleipenaren bidez burutuko da.

Esleipena esleipendunari jakinaraziko zaio, eta horrek, jakinarazpenaren ondorengo egunetik hamabost egun naturaleko epean, ondorengoak egin beharko ditu:

- a) Behin betiko bermea eta, hala balegokio, berme osagarria, eratu.
- b) Eraikuntzako arrisku orotako aseguru-polizaren kopia eta ordainagiria aurkeztu.

Azkenik, Administrazio honetan agertu beharko du esleipendunak, esleipena jakinarazten denetik hilabeteko epean, kontratua administrazio-agirian formalizatzeko.

Kontratistari egozteko moduko arrazoiengatik kontratuaren formalizaziorik ez badago, Administrazioak suntsiaraztea erabaki dezake, aurrez interesatuari entzunda, eta dagokion kalte-ordainarekin.

Lizitazio eta esleipeneko iragarkien gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

## **III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA DAGOKION JURISDIKZIOA**

### **29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Baldintza Agiri honen arabera egiten den kontratuak administrazio izaera izango du eta bertan ezarri gabeko guztian ondorengoak hartuko dira kontuan: Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Bateginak, ekainaren 16ko 2/2000 Errege Dekretu Legegileak onartutakoak, II. Liburuan, I. Idazpuruan ezartzen duena, baita Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuz onartutakoa, eta, hala balegokio, Herri Administrazioen kontratazioari aplikatzeko gainerako arauak.

Kontraesanik balego Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen eta espedienteari atxikitako beste dokumentazio teknikoaren artean, Agiri honetan xedatutakoa nagusituko da.

### 30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik eratorritako auzigaiak administrazioarekiko jurisdikzioaren mende jarriko dira, baina, hala ere, beren auzigaiak arbitrajera aurkeztea erabaki dezakete alderdiek, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.

Arrasaten, 2008ko apirilaren 11n.

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

Izpta.: Belen Txintxurreta

#### *PROIEKTUAREN KONTSULTA.-*

“EPELEKO ZABORTEGIAN BARNE-BIDE BAT ETA UR GARBIEN UBIDE PERIMETRALAK EGITEKO PROIEKTUA” dokumentu teknikoa interesatuen eskura izango da hemen:

- KOPYPREST: Erguin kalea, 1 behea, ARRASATE. Tfno.: 943 77 07 36.  
[arrasate@kopyprest.com](mailto:arrasate@kopyprest.com)

**EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitate honetako Gobernu Juntak 2008ko apirilaren 16an egindako bilkuran onartu zuela agerrarazteko.**

**Arrasaten, 2008ko urtarrilaren 17an.  
BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**

**Izpta.: Belen Txintxurreta**